

Ekonomia, aldaketaren eragilea.



Gida didaktikoa Batxilergoko 2.

Egilea:



Laguntzailea:



Lizentzia:



"Errekonozimendua –Ez komertziala-Berdin parekatu “
Spainia. Creative Commons

AURKIBIDEA

Aurkibidea	1
Sarrera.....	2
1. Justifikazioa.....	3
2. Oinarrizko gaitasunerako ekarpena.....	4
3. Unitatearen helburu didaktikoak.....	6
4. Edukiak: <i>Ekonomia, aldaketaren eragile</i>	7
5. Metodologia.....	8
6. Lan saioen plangintza.....	10
7. Jarduera osagarriak eta sakontzako jarduerak.....	14
8. Eranskinak.....	15

Gida didaktiko hau Fiarek egiten duen hezkuntza proposamena da eta Bizkaiko Foru Aldundiak garapenarekiko lankidetzan, sentsibilizazio eta hezkuntzarako diru laguntzak ematen dituen programaren markoan finantzatutako *Diruak eta finantzek gure gizartean duten lekua eta Justizia Ekonomiko Orokorrean duten eragina* izeneko sentsibilizazio proiektuaren zati bat da.

Material honen bidez lortu nahi dena, batxilergoko 2. urteko ikasleak sentsibilizatzea da, bai diruak eta finantzek gure gizartean duten lekua eta Justizia Ekonomiko Orokorrean duten eragina dela-eta, baita eredu ekonomiko tradizionala ez bezalako aukeren beharraz ere. Material didaktiko hau, batxilergoko 2. urteko ikasleekin lan egiten duten irakasleentzat pentsatu eta diseinaturik dago.

1. Justifikazioa

Elkartasuna sustatu eta herritarren jokaera demokratiko, arduratsu, aske eta kritikoa bermatzeko biderik egokiena hezkuntza da eta, horregatik, ezinbestekoa da gizarte aurreratu, dinamiko eta zuzenak eratzeko. Herri baten eta herri horretako herritarren aberastasunik handiena eta baliabide nagusia hezkuntza ona da.

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak herritartasun gaitasuna hezkuntzaren helburu nagusietako bat dela dio eta, honen ondorioz, prestakuntza morala zeharka ezartzen da hezkuntzako etapa guztietan zehar. Prestakuntza honen barnean, gurea bezain gizarte konplexuetan parte hartzeko oso garrantzitsuak diren portaerak eta baloreak ikastea ere badago, baita errealitateari buruzko hausnarketa kritikoa sustatzea ere.

Ikaskuntza hauek gaztearen heldutasun moralaren prozesua sustatzen dute, elkarrikeria bere-berea duen arazoizkotasuna erabiliaz, eta autonomia eta gaitasun kritikoko goragoko maila batera heltzeko bidea irekitzen diote.

Horregatik guztiagatik, justifikaturik dago hau bezalako unitate didaktikoak egotea, haien helburua, gure gizarteetan justizia, askatasuna eta berdintasuna garatzeko oztopoa diren banan-banako zein taldeko ezaugarriei buruzko sentsibilizazioa eta prestakuntza ematea baita. Kasu zehatz honetan, helburua, finantza bitartekotzak herri eta gizartearen garapenean dituen ondorioei buruzko prestakuntza ematea eta ekonomia eta gizarte antolakuntza zuzenago eta duinagoa sustatu nahi duten eredu ekonomiko tradizionala ez bezalako aukerak ere badirela erakustea da.

2. Oinarrizko gaitasunerako ekarpena

2006ko Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak hezkuntza sistemako curriculumaren definizio eta antolaketan gaitasunen markoa agerrarazten du. 2006ko gutxieneko edukiei buruzko dekretuaren I. eranskinak oinarrizko gaitasunak definitzen ditu eta banan-banan deskribatzen ditu, hezkuntza zikloetan zehar ikasgai desberdinek gaitasun hauek garatzen nola laguntzen duten azaltzen duela.

Ekonomia, aldaketaren eragile izeneko unitate didaktiko honen bidez, *gizarte eta herritar gaitasuna* garatzen laguntzen da zuzenean batez ere. Izan ere, bertan aztertzen den gaia, hau da, finantza bitartekotzak gizarteak eratzean dituen ondorioak eta eredu tradizionalaz bestelako aukerak, ikaslearen hausnarketa etiko pertsonala eragiten duen gaia da.

Gaitasun honek, bizi garen gizarteko errealitatea ulertzeko bidea ematen du, baita herritartasun demokratikoa gauzatu eta harekin lankidetza izan, bizi eta konpromisoa hartzekoa ere.

Unitate didaktikoak, hausnarketa kritikoaren bidez eraikitako norberaren balio eskala pertsonala egitea lantzen du.

Beste ikuspegi batetik, erabiltzen den metodologiak ere, *gizarte eta herritar gaitasuna* lortzea errazten du, lankidetzarako talde lanerako dinamikak garatzen baitira eta honek helburu bera lortzeko berdinen arteko elkarketa eta ikasleen arteko lankidetza errazten ditu. Hala, haien artean gizarte loturak sortzen dira eta gaitasun hori indarturik geratzen da.

Klaseetan erabiltzen den lan sistemak, *norberaren autonomia eta ekimen pertsonalerako gaitasuna* ere sustatzen du, norberak jarrera hartu eta elkarriketaren bidez jarrera hori defenditzearen alde egiten baitu. Norberaren balorazioak eta hausnarketak egitea eskatzen zaienez gero, norberaren ikuskera eginez joan behar dute eta, beraz, beren autonomia ere eratu behar dute.

Zehar bidez lantzen den beste gaitasun bat *hizkuntzaren bidezko komunikazioa* da. Unitateko lan guztiaren oinarria irakurri, idatzi, entzun eta erantzuteak osatzen dute,

komunikazioa etengabe lantzen delarik. Hala, termino eta kontzeptuen erabilera egokiaren garrantzia azpimarratu egiten da eta, ondorioz, ikaslearen lexikoa aberastu.

3. Unitatearen helburu didaktikoak

1. Etikaren ikuspegia lantzea, ekonomiaren gaiari aurre egitean ikuspegi hau erabiliz, eta eremu horretan pentsaera kritikoa garatzea, horretarako injustizia eragiten duten kontsumo ereduak identifikatu eta norberaren banako aukerek espazio publikoan duten eraginaz oharturik.
2. Finantza bitartekotza eta banka etikoko aukera desberdinak ezagutzea, dirua arduratsuki erabiliz gizarte zuzenagoak eraikitze saioak ontzat ematea eta haien beharra ulertzea.
3. Diruak eta finantzen sektoreak gure gizartearen erakuntzan dituzten garrantzia eta pisua, baita berauek ikuspegi etikoa erabiliz aztertze beharra ere ulertzea, ekonomia aldaketarako eragileztaz harturik.
4. Lan taldeetako kide izan eta lan egitea, helburu komunak lortzeko, elkarrikeria eta partaidetza demokratikoaren bidez eraginkorki komunikatuz eta aktiboki parte hartuz.

4. Edukiak: Ekonomia, aldaketaren eragile.

(Kontzeptuzkoak)

- Ekonomia eta etika: norberaren eta gizartearen erantzunkizuna
- Ekonomia alternativo eta solidarioa
 - Banka etikoa eta bestelako finantzak
 - Fiare eta Banka etikoko Proiektua

(Prozedurazkoak)

- Argudiozko elkarrizketaren erabilera
- Errealitatearen azterketa kritikoa

(Jarrerazkoak)

- Kontsumo gizartearen aurreko jarrera kritikoa
- Norberaren erantzunkizuna injustizia egoeren eta haien iraupen edo eraberritzearen aurrean

5. Metodologia

Metodologia edozein unitate didaktikoren funtsezko atala da, areago hau bezalako unitate baten kasuan, gai etikoak aztertzen diren egoera zehatz batekiko sentsibilizazioan, estrategia egokiak aukeratuz, pertsonen arteko harreman zuzenago eta orekatuagoak ezartzen eta pertsonen gaitasun kritikoa garatzen lagundu ahalko baita.

Jarrerak, hein batean, subjektua bere giroan sartzen denean eratzen dira eta, beraz, gizartearen testuinguruetan ikasten dira.

Ikasleek gauzatzen duten ikaskuntzak adierazgarria izan behar du, hau da, eduki berriek lotura koherentea izan behar dute ikasleak lehenago zituen ezaguerekin eta hortik abiatuta egituratuko dira eskema materialak. Horretarako, ikasleak berak zeregin aktiboa eduki beharko du prozesu honetan.

Batzilergo ikasleak motibaturik sentitzeko, esan dugun bezala, edukiek lotura izan behar dute beren mundu afektiboarekin, zentzu positiboa izan behar dute, ikasleek edukiei zentzua ikusi behar diete beren bizitzetan.

Hala, saioek errentagarritasunik handiena izango dutela bermatzeko eta ikasleen autonomia sustatzeko, unitate didaktiko hau prestatzean planifikatu diren ikaskuntza eta jardueretarako estrategietan ikaslearen parte hartze aktiboa behar da, bai jarduera teorikoak direnean eta bai praktikoak direnean ere.

Jarraian, erabili den metodologiaren ezaugarri diren alderdietako batzuk aipatzen dira.

- Taldekatzea

Ikasleak modu desberdinetara taldekatu ahal dira, hots: talde handi bakarra do azpitalde txikiak egin daitezke. Bi aukera hauek abantailak dituzte eta erabilgarriak dira, zein bere helburuetarako; bi saioetan zehar, beraz, taldekatze modu biak txandakatzen dira.

Lehendabiziko aukera, talde orokorra, alegia, kide guztiek aldi berean jarduera berbera gauzatzen dutenean erabiltzen da.

Beste momentu batzuetan higitari edo malgu izeneko talde batzuen inguruan antolatutako jarduerak proposatzen dira. Talde hauek hiru ikasle edo gehiagok osatzen dituzte eta jarduera zehatz bat garatzeko balioko dute. Taldekatze hauen iraupena egin beharreko ataza burutzeko behar den denborakoa da eta taldeek ez dute barne egitura jakinik, jarduerak ematen baititu horretarako arauak.

Ekipoko lana oso interesgarria da beti, ikasleek elkarri laguntza eman diezaioten aukera ematen baitu, horren bidez pertsonen arteko jarrerak eta harremanak lantzen direlarik; honek, gainera, ikasgelan giro ona sortzen laguntzen du.

Beste jarduera batzuk banan-banan egiten dira.

- Baliabideak eta materialak

Unitatea garatzeko proposatzen diren material teoriko eta praktikoa ikasleen gainerako ikaskuntzarekin bat etortzea nahi izan da, baita ohituta dauden eta haien arreta lortzen duten pizgarriekin ere. Zentzu horretan, 2.batzilergoko gaurko ikasleak eta orain dela hogeita hamar urtekoak ez dute zerikusirik elkarrekin. Gaurko gazteak ikusizko pizgarri eragingarrietara ohituta daude. Horregatik funtsezko baliabideetako bat PowerPoint da: irakaslearen azalpenerako euskarria da eta adierazi nahi diren ideia asko argitzeko elementu osagarria da.

Honelako euskarriek lagundu egiten dute taldearen arreta ikasgai komun baten ingurura ekartzeko, bideoak eta irudiak erabili ahal direnez, beste bitarteko batzuk baino erakargarriagoa baita.

- Ariketak eta jarduerak

Mota desberdinetako jarduerak proposatzen dira. Haietako batzuk motibatze dira, lehen lan saiokoa, adibidez, eta ikasleak harritu eta gogoetara eramateko helburua dute; badira sakontzeko, berrikusteko eta finkatzeko jarduerak ere.

6. Lan saioen plangintza

Jarraian, unitate didaktikoak dituen 50 minutuko bi saioetan egiteko jarduerak aurkezten dira.

1. SAIOA

Unitatearen helburuak:

- Lan taldeetako kide izan eta lan egitea, helburu komunak lortzeko, elkarrizketa eta partaidetza demokratikoaren bidez eraginkorki komunikatuz eta aktiboki parte hartuz.
- Ekonomiaren eremuan pentsaera kritikoa garatzea, injustizia eragiten duten kontsumo ereduak identifikatu eta norberaren banako aukerek espazio publikoan duten eraginaz oharturik.

Lan saioaren helburuak:

- Jarduera ekonomikoak gure gizartean duen pisuaz eta gizartea aldatzeko jarduera honetan gogoeta etikoa egiteko beharraz hausnarketa egitea

Edukiak:

- Economía eta etika etengabeko eztabaida.

Jardueren hurrenkera	Kalkulatutako iraupena (min)	Baliabideak
1. Galdetegia	5'	-1.Eranskinen lan fitxaren fotokopiak.
2. Zuxenketa	20'	-Ordenagailua -Proiektorea -Power Pointeko aurkezpena (1-8 diapositibak) 2. eranskina -Inteneterako sarbidea
3. Galderak	10'	-II lan fitxako fotokopiak. 3.eranskina
4. Bateratze lana	10'	-Power Point aurkezpena. (9.diapositiba)
5. Azken haurnarketa	5'	-Ordenagailua -Proiektorea -Power Point aurkezpena(10-12 diapositibak).2.eranskina

- 1. Galdetegiak.** Lau edo bost ikasleko taldeak egin eta lan fitxa bat banatzen zaie. Fitxak ikasleek erantzuteko zenbait galdera dakartza.
- 2. Zuxenketa.** Irakasleak PowerPoint aurkezpen baten laguntzaz, erantzunak zuzentzen ditu.
- 3. Galderak.** Talde berberetan, irakasleak ematen duen fitxan agertzen diren galderak eta esaldien iruzkina egiten dute.
- 4. Bateratze lana.** Elkarriketarako unea irekitzen da taldeetan esandakoaz guztien artean hitz egiteko.
- 5. Azken gogoeta.** Irakasleak, amaitzeko, hausnarketa bat egiten du, PowerPoint aurkezpen baten laguntzaz.

2. SAIOA

Unitatearen helburuak:

- Finantza bitartekotza eta banka etikoko aukera desberdinak ezagutzea, dirua arduratsuki erabiliz gizarte zuzenagoak eraikitzeko saioak ontzat ematea eta haien beharra ulertzea.

Lan-saio helburuak:

- Ekonomiaren eremuko banako erantzukizunaz eta bestelako aukeren beharraz diharduen testu bat ondo ulertuz irakurtzea.

Edukiak:

- Beste aukera ekonomiko batzuk: banka etikoko proposamen bat.
- Fiare proiektua.

Jardueren hurrenkera	Kalkulatutako iraupena (min)	Baliabideak
1. Aurkezpena beste aukera batzuk	10 min	-Ordenagailua -Proiektorea -PowerPoint aurkezpena (13-14 diapositibak) 2. eranskina
2. Irakurketa eta iruzkinak	15 min	- III. Lan fitxaren fotokopiak. 4. eranskina.
3. Attac bideoa ikustea	5 min	-Ordenagailua -Proiektorea -PowerPoint (15. diapositiba) 2. eranskina. -Internetarako sarbidea.
4. Banka etikoaren eta Fiareren aurkezpena 5. Zalantzak eta hausnarketak	15 min	-Ordenagailua -Proiektorea -PowerPoint (16, 17 eta 18. diapositibak) 2. eranskina -Internetarako sarbidea

1. **Beste aukera batzuen aurkezpena.** PowerPoint aurkezpenaren laguntzaz, irakasleak laburki dauden elkertasunezko ekonomiako aukerak aurkeztuko ditu. Sarrera gisa, ikasleei bestelako aukerarik ezagutzen ote diten galdetuko die.
2. **Irakurketa eta iruzkina.** Ikasleei III. Lan fitxaren fotokopia emango zaie. Fitxa horretan "Nire diruaz ez. Banka etikoa eta herritarren erantzunkizuna" artikuluko zati bat agertzen da. Norberak irakurri ondoren, testuak eragin dituen inpresioei buruzko iruzkinak eta hausnarketak egiteko tarte irekiko da.
3. **Attac bideoa ikustea.** Irakasleak, Banka etikoaren aurkezpen laburra dakarren bideoa jarriko du.
4. **Fiareren aurkezpena.** PowerPoint aurkezpenaren laguntzaz irakasleak era errazean banko etikoa eta banko etikoko proposamen zehatza den Fiare proiektua aurkeztuko ditu. Azkenean minutu batzuk utziko ditu, izan daitezkeen zalantzak argitzeko eta guztiari buruzko iruzkinak egin edo inpresioak adierazteko.

7. Jarduera osagarriak eta sakontzeko jarduerak

- Kantuak erabiliz. Ikasleei, kontsumoko gizartea salatzen duten letrak dituzten kantu ezagunak ekartzeko, edota kantu horiek klasean jarri eta ikasleei kantuek protestatzen duten hori zer den azaltzeko eskatu ahal zaie.

Kantu adibide batzuk:

- "Consumismo" Habeas Corpus
 - "Muere en paz" Def con Dos
 - "Consumo gusto" Skap
 - "Libre" Berri Txarrak
 - "Canción Consumo" Luis Eduardo Aute.
-
- Diruaren Historiaren sarrera arin, erraz eta erakargarria egiteko, "Concursante" filmaren zatiren bat ikusi ahal da.
 - Aldizkarietan agertzen direnen moduko test bat egin daiteke, "nolako aurreztailea zara? Solidarioa, gogorra, axolagabea" eta abar bezalako galderei erantzuteko.
 - Jarraiko bideoak interesgarriak izan daitezke elkarrekin egindako hausnarketa eta iruzkinari begira :
 - "El Concursante" izeneko filma.
 - "El valor de las cosas" izeneko laburmetraia.
 - "La isla de las Flores" film laburra.
 - Setem-en "El ultimátum evolutivo" izeneko bideoa.
 - Setem-en Banca Limpia kanpainarako egindako bideoak.
 - Interesgarria izan liteke proiektuen dinamika bat burutzea, ikasleek beren kontura ondorengoak bezalako elementuei buruzko ikerketa eginez, hots:
 - Erkatasunezko ekonomia
 - Kontsumismoak gure gizartean dituen ondorioak
 - Gure kontsumoak garapen bidean dauden herrietan dituen eragina eta ondorioak.
 - Gure kontsumo ereduak ingurumenean dituen ondoreak
 - Banka etikaren aldeko kanpainak edo ohiko bankaren gehiegikeria eta portaera ezmoralak salatzeako kanpainak.

8. Eranskinak

Jarraian lagungarriak izan daitekeen dokumentuak aurkezten dira.

1. Eranskina

I. Lan fitxa: Ikaslearentzako

Erantzun itzazu taldean honako galdera hauek:

- Zure adineko jendearen artean, zein portzentajek jasaten ditu elikadurako arazoak?
- Zenbat pertsonak ez du urik munduan? Zenbat haur hiltzen dira egunero urik ez dutelako?
- Zenbat pertsona hiltzen dira gosez munduan egunero?
- Zenbat pertsona hiltzen dira kutsaduragatik munduan?
- Zenbat hektarea baso desagertzen dira egunero?
- Zenbat irabazi zuen, zure ustez, zapatila hauek egin zituen pertsonak?
- Zer da sandblasting?
- Zenbat irabazi zuen, zure ustez, zapatila hauek egin zituen pertsonak?

2. Eranskina

PowerPoint aurkezpena: azpimarratutako tituluak kilka eginez ikus daitekeen bideoak dira.

1

Ekonomia, aldaketaren eragile

Unitate didaktikoa
Batxilergoko 2.a

Egilea:  Laguntzailea: 

4

Zenbat pertsonak ez dute urrik munduan?

[Un minuto de agua](#)



Munduko biztanleriaren % 40ak ezin du lortu ur edangaririk
"23.500 milioi gizki baino gehiagok ez dute gaur egun sistema sanitario egokirik. Kalkulatzen denez, 884 milioi pertsonak, haietako gehienak afrikarrak izaki, ez dute ur edangarria lortzerik. Bost urte baino gutxiago dituzten 1,5 milioi haur inguru hiltzen dira egunero urez kutsatzen diren gaixotasunengatik"

Irina Bokova, UNESCOren Zuzendari Nagusia

2

Galdetegia

- Zure adineko nesken artean, zein porzentajek jasaten ditu elikadurako arazoak?
- Zenbat pertsonak ez dute urrik munduan? Zenbat haur hiltzen dira egunero urrik ez dutelako?
- Zenbat pertsona hiltzen dira gosez munduan egunero?
- Zenbat pertsona hiltzen dira kutsaduragatik munduan?
- Zenbat hektarea baso desagertzen dira egunero?
- Erosi duzu ifloiz desgastatutako praka bakerorik?
- Zenbat irabazi zuen, zute ustez, zapatila hauek egiten zituen pertsonak?

5

Zenbat pertsona hiltzen dira gosez munduan egunero

► [Los motivos del hambre en el mundo](#)



3

Zeln da elikadura arazoak dituzten zure adineko nesken portzentajea?



- Bere burua lodi ikusten dute, baina egia esan ondo daude edo areago, kilo batzuk falta zaizkie, pisu osasungarria izateko. Hauxe da gehiegizko pisua dutela uste duten 15 eta 19 urteen bitarteko nesken egoera.
- Azterlanak erakusten duenez, bere burua lodizat duten hamar nesketatik ia sei pisu egokia dute. Eta hamar horietatik, beste hiru argalegi daude eta zerbait kilo irabazi beharko lituzkete.
- Mutlen kasuan, bere burua lodizat jotzen dutenen % 41ek gehiegizko pisuarekin obesitatea dute eta % 9,9k soilik dute beharko luketen baino pisu txikiagoa.

6

Zenbat pertsona hiltzen dira kutsaduragatik munduan?

"Kalkulatzen denez, herrietako atmosferaren kutsadurak urtero 1,3 milioi heriotza eragiten ditu, diru sarrera ertainak dituzten herrialdeetan bizi direnek eragin hau proportziorik gabeko moduan jasaten dutelarik. Barneko airearen kutsadurak, kalkulatuzen denez, denbora baino lehenagoko 2 milioi heriotza eragiten ditu, gehienak gertatzen ari diren herrialdeetan. Heriotza hauenetik ia erdia, bost urte baino gazteagoen pneumoniengatik gertatzen dira."

OMS, 2011ko irailako 313 ohar deskribatzailean.



7

Zenbat hektarea baso desagertzen dira egunero?

Naturarentzako Mundu Funtzaren (WWFren) arabera, egunero 40.000 futbol zelairen pareko baso superfiziea galtzen da. Kausa nagusiak suteak, legez kanpoko mozketak, klima aldaaketaren ondoriozko baso bihurtzea eta neurritz kanpoko kontsumoa dira.



Ekonomia, abakioaren eragile

11

► **Lehen erantzuna:** Etikarik ez. Galdera hauek guztiak ZIENTZIA EKONOMIKOAK erantzuten ditu.

► Galdera horiek guztiak erantzuteko erarik onena, kapitalismoak berea duen merkatu libreko sistema da.



Ekonomia, abakioaren eragile

8

Erosi duzu iñoiz desgastatutako praka bakeroak?



Sandblasting:


- Teknika arriskutsua -- silikosia
- Debeakututa Europan
- Legezkoa Turkia, Bangladesh,
- Txina eta Indian.

Ekonomia, abakioaren eragile

12

Baina...

Funzionatzen du sistema horrek?




Ekonomia, abakioaren eragile

9

► "Ekonomia ortodoxoak ontzat ematen du gizarte sistema dagoen-dagoenean, gauzak naturalki horrelakoak balira bezala". Paul Sweezy .

► "Ekonomiaren jarduerak ez da neutralki. Ez da garatzen borondate edo hebururik gabeko mekanismo automatikoen bidez. Erabaki ekonomikoak, azken batean, erabaki otikoak dira beti, irizki marko jakin batetik hartzen direnak, eta euren ondorioak onuragarriak dira batzuentzat eta kaltegarriak beste batzuentzat". Fiare.

► Etikak badu lekurik jarduerak ekonomikoetan? Ekonomia eta etikak badute harremanik elkarrekin?



Ekonomia, abakioaren eragile

13

Beste aukera arduratsu batzuk

► Elkartasunezko ekonomiak, gure gizartearen diren injustizia eta desberdintasun mota guztiak aldatzea lortzeko lan egiten du.



Ekonomia, abakioaren eragile

10

Ekonomia: urriak diren baliabideak arrazoiko eran erabiliz, giza beharrak asetzeko ondasunak eta zerbitzuak sortzeko helburua duten jardueren multzoa.

Etika: gizakiaren portaera, portaerak baloratzeko irizpideak eta hautapenak aztertzen dituen filosofiaren parte.

Ekonomia, abakioaren eragile

14

"Finantza entitate baten zerbitzuak erabiltzen ditugunean, gure dirubako, zerbitzu horiek berak erabiltzen dituzten edo beste entitate batzuen akzio multzo txikiak dituzten pertsona isuri itzelarekin elkartzen dira. Egia da gure finantza hautuak legezkoak direla, gizartearen normalizaturik daudela ... baina justuak dira? Badakit nire bankuak nire dirurekin zer egiten duen? Nolako balioa dute niretzat, han edo hemen lortutako dibidenduek? Begiak iteko prest nago, baldin eta nire gordailuaren interesa, urteko dibidendua eta nire akzioen balioa ahalik eta handiena bada?"

?

Ekonomia, abakioaren eragile

15

Banka etikoko ekimenak


- Diruaren balio soziala iragartzen dute:
 - Kredituaren bidez, gizartearen eragin positiboa duten jarduerak ekonomikoari laguntza ematen diete.
- Dirua enpresa, jarduera eta proiektu sozial, ekologiko, kultural, eta solidarioei uzten diete eta, horrela, giza garapenaren alde egiten dute, bai munduko iparraldeko gizarteetan eta bai Hegoaldekoetan ere.
- Aurrezki eta inbertsio produktu arduratsu eta gardenak eskaintzen dituzte.

[video atak](#)

Ekonomia, arduraren eragin 15

17

Finantzaturiko proiektuak:



Ekonomia, arduraren eragin 17

16

Fiare: banka etikoko proposamen bat



Helburu bikoitza bete nahi du:

- Gizartearen eragin positiboa duten jarduerak ekonomikoak finantzatzea. Egan nahi baita, proiektu eta enpresa sozial, ingurumeneko, kultural eta humanitarioei laguntza ematea.
- Aurreztalietan inbertitzaile arduratsuei honelako jarduerak laguntza emateko aukera eskaintzea, finantza eritateak beren dirua zertan erabiltzen duen arduratsuki erabakitzeko bidea eman duelarik.

Eta hori guztia era garden batean

- <http://www.proyectoFiare.com/>

Ekonomia, arduraren eragin 16

18

Kapital soziala



Fiare proiektua bazkide osaera

- Lurraldeetako elkarteak
- Nola parte hartu?
 - Sustatzaileak
 - Lankideak
 - Boluntarioak

Partaidetza: 300 €

Pertsona 1= bozka 1.

Ekonomia, arduraren eragin 18

3. Eranskina

II. Lan fitxa: Ikaslearentzako

- 1) **Egin ezazu ondorengo esaldiaren iruzkina:** "Ekonomiaren jarduera ez da neutrala. Ez da garatzen borondate edo helbururik gabeko mekanismo automatikoen bidez. Erabaki ekonomikoak, azken batean, erabaki etikoak dira beti, iritzi marko jakin batetik hartzen direnak, eta euren ondorioak onuragarriak dira batzuentzat eta kaltegarriak beste batzuentzat".
- 2) **Egin ezazu Paul Sweezy-ren ondorengo aipuaren iruzkina:** "Ekonomia ortodoxoak ontzat ematen du gizarte sistema dagoen-dagoenean, gauzak naturalki horrelakoak balira bezala".
- 3) **Saia zaitzte guztien gustuko erantzun bat aurkitzen:** Ekonomiak eta etikak badute harremanik elkarrekin? Etikak badu lekurik jarduera ekonomikoetan?

4. Eranskina

III. Lan fitxa: ikaslearentzako

Irakurri ondorengo testua eta egin iruzkina:

"Bankaren kreditu eta inbertsio jarduerak dakartzan hautapenak ezin dira inolaz ere norberaren interes pribatuen eremuko gauzatzen soilik hartu. Mailegua nori egin eta nori ez edo zein enpresa, sektore eta geografia eremutan inbertitu bezalako erabakiek, errotik baldintzatzen dituzte gure gizartearen egitura eta pertsona askoren geroa, eta beraz, erabaki hauek bertan sartuta dauden ekintzaile guztien ardura eskatzen dute. Baina erantzukizuna ez da entitateena soilik. Begira diezaiegun herritar horiei (aurreztaile eta akziodunei) eta aurre egin diezaiegun gure erantzukizunari. Hitz egin dezagun apur batez geure buruaz, eta ez finantza bitartekotzako entitateez.

"Finantza entitate baten zerbitzuak erabiltzen ditugunean, gure dirutxoak, zerbitzu horiek berak erabiltzen dituzten edo beste entitate batzuen akzio multzo txikiak dituzten pertsona isuri itzelarekin elkartzen dira. Egia da gure finantza hautuak legezkoak direla, gizartean normalizaturik daudela... baina justuak dira? Badakit nire bankuak nire diruarekin zer egiten duen? Nolako balioa dute niretzat, han edo hemen lortutako dibidenduek? Begiak ixteko prest nago, baldin eta nire gordailuaren interesa, urteko dibidendua eta nire akzioen balioa ahalik eta handiena bada?

Nire diruaz ez. Banka etikoa eta herritarren erantzukizuna artikulutik.

Autoreak: Cristina de la Cruz eta Peru Sasia